



**EBAZPENA, 2020KO IRAILAK 18, ARABAKO ETXEBIZITZAKO LURRALDE ORDEZKARIARENA, HONEN BITARTEZ, VITORIA-GASTEIZKO UDALERRIKO ZABALGANAN, BABES OFIZIALEKO 42 ETXEBIZITZA ERRENTAMENDU ERREGIMENEAN ESLEITZEKO PROZEDURAN ONARTUTAKOEN ETA BAZTERTUTAKOEN ZERRENDAK ARGITARATZEN DITUENA.**

### **AURREKARIAK**

1.- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko ekainaren 8ko Aginduaren bidez, hasiera eman zitzaion Vitoria-Gasteizko Zabalganan babes ofizialeko 40 etxebizitza alokairuan esleitzeko prozedurari.

2.- Aipatutako Aginduaren zortzigarren ebazpenean ezartzen zen indarrean dagoen araudian aurreikusitako eskakizunak betetzen zituzten pertsonak edo bizikidetzak-unitateak Agindu horretan bertan zehazten zen esleipen-prozeduran sartzeko epea, 2020ko ekainaren 29a eta uztailaren 23a bitartean (bi egunak barne)

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

1.- Etxebizitzako Lurralde ordezkaria da Ebazpen hau emateko organo eskuduna Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 77/2017 Dekretuko 19. artikulua arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoaren arabera

2.- Ebazpen honen bigarrena aurrekarian aipatzen den epea amaitu ondoren, Etxebide Etxebizitza

**RESOLUCION DE 18 DE SEPTIEMBRE DE 2020 DE LA DELEGADA TERRITORIAL DE VIVIENDA DE ÁLAVA, POR LA QUE SE PUBLICAN LAS LISTAS DE ADMITIDOS/AS Y EXCLUIDOS/AS EN EL PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN, EN RÉGIMEN DE ARRENDAMIENTO, DE 42 VIVIENDAS DE PROTECCIÓN OFICIAL EN ZABALGANA, EN EL MUNICIPIO DE VITORIA-GASTEIZ.**

### **ANTECEDENTES**

1.- Por Orden de 8 de junio de 2020, del Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda se inició el procedimiento de adjudicación en régimen de arrendamiento de 40 viviendas de protección oficial en Zabalgana, en el municipio de Vitoria-Gasteiz

2.- En el resuelto octavo de la citada Orden se fijaba el plazo, entre el 29 de junio y el 23 de julio de 2020 (ambos inclusive) para que las personas o unidades convivenciales que cumpliendo los requisitos previstos en la normativa vigente se incorporasen al procedimiento de adjudicación determinado en la misma.

### **FUNDAMENTOS DE DERECHO**

1.- La Delegada Territorial de Vivienda es el órgano competente para dictar la presente Resolución en virtud de lo previsto en el artículo 19 del Decreto 77/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y en la Disposición Transitoria Única del Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos

2.- Finalizado el plazo al que se hace referencia en el antecedente segundo de esta Resolución,



LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA  
ETA GARRAIO SAILA  
Etxebizitzako Arabako Lurralde  
Ordezkaritza

DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN  
TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES  
Delegación Territorial de Vivienda de  
Álava

Eskatzaileen Erregistroan izena emanda dauden pertsonen edo bizikidetz-unitateen egoera (esleipen-prozeduran) aztertu da martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuan babes publikoko etxebizitzaren araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzkoan eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15ko Aginduan etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoan aurreikusitakoari jarraiki.

Horren ondorioz, honako hau

#### EBAZTEN DUT

1.- Vitoria-Gasteizko Zabalganan 42 babes ofizialeko etxebizitza alokairuan esleitzeko prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak argitaratzea; zerrenda horiek Ebazpen honen Eranskinetan jasotzen dira hurrenez hurren.

2.- Prozeduran onartuak eta baztertuak izan direnen zerrendak hilabetez jarriko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, izan ere, Etxebizitzako sailburuordeari aurkeztu ahal izango zaio Ebazpenaren aurkako gora jotzeko errekurtoa, argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita hilabeteko epean

Vitoria-Gasteizen, 2020ko irailak 18.

las incorporaciones realizadas por las personas o unidades convivenciales inscritas en el Registro de Solicitantes de Vivienda Etxebide se han examinado de conformidad con lo previsto en el Decreto 39/2008, de 4 de marzo, sobre régimen jurídico de las viviendas de protección pública y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, y en la Orden de 15 de octubre de 2012 del Consejero de Vivienda, Obras públicas y Transportes del registro de solicitante de vivienda y de los procedimientos para la adjudicación de Vivienda de Protección Oficial y Alojamientos Dotacionales de Régimen Autónomo.

En consecuencia,

#### RESUELVO

1.- Publicar las listas de admitidos/as y excluidos/as en el procedimiento de adjudicación en régimen de arrendamiento de 42 viviendas de protección oficial en Zabalgana, en el municipio de Vitoria-Gasteiz que se reflejan en los Anexos de esta Resolución, respectivamente.

2.- Las listas de admitidos/as y excluidos/as se expondrán durante un mes en el tablón electrónico de anuncios de la sede electrónica de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La presente Resolución no agota la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma Recurso de Alzada ante el Viceconsejero de Vivienda en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de septiembre de 2020



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
Arabako Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritza  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA  
Delegación Territorial de Vivienda de Álava

Fdo./lz.: **M<sup>a</sup> Concepción Fernández Ordoyo**  
ARABAKO ETXEBIZITZAKO LURRALDE ORDEZKARIA  
DELEGADA TERRITORIAL DE VIVIENDA DE ÁLAVA